

Gaurko sorginkeriak

Euzko Gaztedi, 3. zk., 1948-07: 10-12.

(Aurreko zenbaitik dator)

– Arrigarria da emakume orren jakinduria! –jarraitu zuan gizon lodiak. Asmatu zion biziera guzia ta esketu ziran, arren da arren, nere alaba ori ezkondu baño lenago bere etxetik atera asi ta neregana ekartzeko.

– Ta zuk ez al'zakizun eskontzek o zegoanik?– Ile gorriaren abotza.

– Bai zera! Ori da ba arrigarria! Ta ez ori bakarrik! esan ziran bezelaxe, nik batere ortarako indarririk egin gabe, alaba berak erabaki zuan, ezkontza utzi ta neregan etortzea!

– Begira!!... –danak batera.

– Alaba bizi zazu, beraz? –zion orain azkenen eldutakoak.

– Ila dala bai –ausartu zan ile gorria berriz oso asarre.

– Ez du entzun da –erabaki zuan legunago alaba gaz etorrisanak.

– Bai, ta nola ta noiz ilko zan ere ba nekiela gañera. Gorriak ikusi nituan. Estuazun gogorak igaro ere bai...!

– Emakume sorgiñak berriz asmatu al zuan?

Erritar [Martin Ugalde]